

Arrazoi asko daude jokoan: gaia "delikatu" samarra izatea batetik (tartean erlijioak eta moralak ere izaten baitute zeresanik), baina bestetik komunikabideetan horrek eragiten duen "morboa", betiko exagerazio eta mitoekin. Gaurko honetan fimosiaz arituko naiz, gauzak bere puntuan utzi nahirik, nire eguneroko esperientziak jendeak arazo honen in-

errepikatuko balitz, zakil-mokoa erabat atera eta garbituz, fimosiaren frekuentzia helduengan nabarmen gutxituko litzatekeela. Zergatik izaten da? Normalean sortzetiko malformazioa dela onartzen da, baina behin edo behin agertzen da 50 urtetik gorako gizonezkoengan ere, prepuzioaren inflamazio eta endakapen-prozesu baten ondorio gisa: prepuzioak bere elastikotasuna galdu egiten du, eta ezinezkoa izaten da zakil-mokoa erabat libratzea.

Eta nola konpontzen da problema hau? Fimosia operazio kirurgiko txiki eta sinple batekin konpontzen da; zirkuntzizio edo erdaintzuzarekin, zakil-mokoaren inguruan dagoen azala moztuta alegia.

Horrelakorik egiten ez bada, konplikazioak ager daitezke (infekzio modukoak gehienbat) higiena behar bezala egiterik ez dagoelako. Zenbait kasutan, prepuzioaren zuloa hain txikia da, ezen gernua ateratzen ere zaila izaten baita, eta horrek gernu-aparatuan hainbat alterazio sor ditzake.

Beste konplikazio bat parafimosia da: prepuzio edo azal fimotikoa zakil-mokoaren azpitik geratzen da, une jakin batean koitoan edo masturbazioan. Eta egoera horretan dagoela, prepuzioak eraztun moduko bat sortzen du, glandea estutuz, eta odola benetan barrena atzera itzultzea eragotziz, horrek guztiak glandearen edo zakil-mokoaren hantura sortzen duelarik. Orduan behar-beharrezkoa da prepuzioa bere lekura eramatea, eta hori medikuak eskuzko maniobreakin edota operazio txiki baten bidez lortuko du.

Zirkuntzizioa. Ohitura hutsa edo zerbait gehiago?

Zirkuntzizioa edo erdaintzuzta. Ebaki sinple bat besterik ez, bai-

Fimosia: ebaki ala ez?

Jabier Agirre*

Gezurra badirudi ere, osasun-heziketa hain zabaldua dagoen garai honetan, badira oraindik jendeak erreparoz edo lotsaz tratatzen duen hainbat arlo. Eta sexualitatearen alorra (bere zentzurik zabalenean) izango da horietako bat, zalantzarik gabe.

guruan ezjakintasun eta nahasmendu franko dituela erakutsi baitit.

Zer da fimosia?

Glandea edo zakil-mokoa estaltzen duen azala (horri prepuzioa esaten zaio) askotan estutu egiten da, eta orduan ezinezkoa izaten da zakila tentetzen denean glandea agerian geratzea. Egoera patologiko horri fimosia deritzo, eta gizonezkoengan patologia usua da.

Fimosia oso usua da; ume txikietan batipat. Hala ere, esan beharra dago prepuzioa atzera ekartzeko maniobra behin eta berriz

Fimosia eta zirkuntsizio edo erdaintzari buruzko hainbat galdera

Fimosia operatzeko adinik egokiena zein da?

Ez dago horretarako adin berezirik, baina operazioa bi urte bate baino lehen egitea ez dela komeni esan daiteke; adin horrextan banantzen baitira, modu guztiz naturalean, zakil-mokoa eta prepuzioa. Konplikaziorik gertatuz gero, noski, une horretan bertan egingo litzateke kirurgia, beste inolako geroko gerorik gabe.

banantzen, baina umerik gehientsuenetan banatzea ez da oraindik amaitu, eta bi geruzen arteko atxikidura eta loturak direla medio, prepuzioa nekez erretiratzeko da erabat. Horrek ez du kezkatzeko adina motiborik ematen, normalean denborak aurrera egin ahala geruzak gero eta bananduago daudelako, eta espezialista batzuen arabera, ezin esan daiteke umeak fimosia duenik bi urte bete baino lehen.

dira infekzioen erantzule. Beraz, higiegi egokia eginez gero, ez dago justifikaziorik mutiko jaioberri guztiei zirkuntsizioa egiten hasteko.

Gure umea laster da, fimosia dela eta, operatzekoa. Anestesia orokorra erabiliko zutela uste genuen, baina medikuak ez dela beharrezkoa izango esan digu. Nola liteke hori?

Erdaintzua egiteko ekintza operatorioak berak sortzen duen mina kendu beharra dago. Hori anestesia orokorrarekin lortzen da, edota operatu beharreko zona lokalki anestesiatur ere bai. Pazientea txikia denean (haurra denean batipat), normalean anestesia orokorrak operatzea gomendatzen da, umearen urduritasunak interbentzio kirurgikoa eragotzi ez dezan.

Esan izan da gizonezko guztiak erdaintzua daudelako aparatua genitaleko gaixotasun batzuk ia desagertuak daudela juduengan. Zein gaixotasun dira horiek?

Egia da zakileko minbizia duten gizonezkoen portzentaia askoz ere txikiagoa dela judutar erdaintzua beste talde sozial batzuegan baino. Eta bestalde, umetokilepoan prozesu kantzerosoak dituzten emakumezko juduak ere gutxiago dira proportzioan gainerrako gizarte-taldeetan baino, eta horretan ere gizonezkoen zirkuntsizioak baluke zeresanik (baina hori ez dago erabat frogatuta).

Bestalde, zirkuntsizioak aparatua genitaleko higiegi errazten du, eta litekeena da horrek gaixotasun benereoren baten kontagioa prebenitzen laguntzea, baina normalean gizonezko erdaintzua beste edozeinek adina arrisku daukate era horretako gaixotasunak harraipatzeko.

Espezialista batzuen arabera, ezin esan daiteke umeak fimosia duenik bi urte bete baino lehen.

Zirkuntsizio edo erdaintzak hainbestearainoko abantailak baditu, zergatik ez dira ume guztiak erdaintzen?


Egia da erdaintzak badituela abantaila batzuk. Adibidez, zakileko minbiziaren intzidentzia eta glandeko infekzioen maiztasuna jaitsi egiten dira. Eta horrelako arrazoiak dira zenbait herrialdeetan jaioberri guztiak erdaintzera gomendatzeko erabiltzen direnak. Hala ere, abantaila horiek oso erlatiboak dira, mesede berberak lor baitaitezke zona prepuziala behar bezala garbitzen bada: higiegi egokiak "esmegma" izeneko sekrezio edo jarioak garbitu egiten ditu, eta horietan

Ume jaioberrietan, askotan ezinezkoa izaten da prepuzioa erabat atzera ekartzea, baina sarritan medikuak ez larritzeko esaten die gurasoei. Ez al du umeak fimosirik edukiko?


Litekeena da ez edukitzea. Glandea eta prepuzioaren barruko aldea azal batek estaliak daude, eta fetu-garaian bi azalak elkarturik daude. Jaiotakoan hasi da azala bi geruzatan




FIMOSIA
Glandea edo zakil-mokoa estaltzen duen azala askotan estutu egiten da, eta orduan ezinezkoa izaten da zakila tentetzen denean glandea agerian geratzea.




ZIRKUNTZISIOA
Prepuzioa (zakil-mokoa estaltzen duen azala) ebaki egiten da.




Guraizeekin larruazal sobrante hori "eraztun" moduan ebakitzea komeni da, ondoren ongi sutura dadin.



Larruazala motz uzten da, prepuzioaren eta zakil-muturraren artean atxekidurarik sor ez dadin.



Libre geratu diren bi ertz edo muturrak josi edo suturatu egiten dira.



Gaur egun, hirugarren milurte-kora sartzera goazelarik, judutar eta musulman guztik, sinestunak badira behintzat, zirkuntziosiotik pasatzen dira; baita Estatu Batuetako mutil jaioberrietako asko eta asko (inkesta edo estatistika batzuen arabera % 80ra iritsiko litzateke zifra hori), Amerikako indiarren zati handi bat (bai Ipar, bai Erdi eta baita Hegoamerikan ere), Mikronesia eta Polinesiako natiboak, Australiako aborigen eta afrikarrek ia gehienak. Baina ez dira gizonezkoak bakarrik erdaintzen; emakumezkoak ere bai baizik. Mundu osoan, 100 emakumetik 70 direla kalkulatzen da klitoriaren erazketa, eszisiaoa deitua, edota oraindik ere gogorraga den infibulazioa (hau da, zirkuntziosia eta bulbako ezpainak jostea) jasaten dituztenak. Zein da pertsonak beren buruari, eta duela hainbeste denbora hasita, era horretako gehiegikeriak egiteko arrazoia? Zergatik mantentzen dira denboran zehar horren gogorrak eta odoltsuak diren tradizioak? Erantzuna erraza da judutar eta musulmantzat: horrela dago idatzia Biblian, horrelaxe nahi dute Jainkoak eta Mahoma profetak.

Testamentu Zaharrean, Moisesen lehenengo liburuan (17. kapitulua, 10+14 bertsetak) dago juduek betidanik hain zorrotz bete duten agindua: "Jaioberrri guztiak erdaindu egingo dira jaio eta zortzi egunera. Horrela izango da beti. Gorputzean eraman behar duzue nirekiko duzuen loturaren seinalea. Eta zuen artean erdaindua ez legokeena ez da bizitzarako duin izango eta herritik iraitzia izango da".

Gaur egun zentzu eta kutsu erlijiosoa duela ez du inork ukatzen, baina seguruenik hasieran erdaintzuntza iniziazio-errito bat besterik ez zen izango judutarrentzat orain ere hainbat gizarte eta tribuentzat den bezalaxe.

na esanahi sakonekoa. Zirkuntziosia duela milaka urte jaiotako errituala da, gaur egun milioika eta milioika pertsonak mundu osoan zehar praktikatzeko duena, tartean erlijioa, higijenea, tradizioa, eta moralitate-kontzeptu bitxi samarrak ere nahasten direlarik. Zirkuntziosia Harri Aroan ere bazela pentsatzeko arrazoiak badira. Historian zehar transformatu egin da, bere esanahian aldaketak jasan

ditu (forma diferenteak hartuz) eta une desberdinetan egin izan da. Baina hortxe dirau, beti bezala, eta ia ezinezkoa da gaur egun herrien usadio eta ohituretatik praktika hori baztertzea. Ez tradizioz eta ez historia propiorik ez zuten herrietan etxekotu eta beretartu egin dute, eta adoptatu egin zutenek ere bere historia eta kondaira propioak sortu dituzte horren inguruan.

* Pediatra.